Idiazabalgo
Udala

OHIKO UDALBATZARRA

2026ko maiatzaren 28.

LEKUA: Batzar Aretoa

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

Aimar Lizarazu Iztueta (EH BILDU)

José Agustín Urteaga Usandizaga (EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

Jone Ormazabal Zabaleta (EH BILDU)

Jaione Munarriz Aramendi (EH BILDU)

Aitziber Aizpuru Ceberio (IZALBERRI)

Patxi Mujika Olaizola (IZALBERRI)

Mikel Mujika Romero (IZALBERRI)

IDAZKARIA: Xabier Otaegi Leunda

DEIALDIA: Lehenengoa

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

Gai zerrenda:

1.- 2026-04-30EKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak, aho batez, 2026-04-30eko akta onartzea erabaki du.

2.- DEKRETUEN BERRI EMATEA.

2026/279- 2026/331zenbaki bitarteko dekretuen berri eman da eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Idiazabalgo Udala

3.- FAKTUREN BERRI EMATEA.

Faktura zerrenden berri eman da eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4.- ERANTZUN PUBLIKOA INDARKERIA MATXISTAREN ETA INDARKERIA LGTBIQ+FOBIKOAREN AURREAN. ONARPENA HALA BADAGOKIO.

Erantzun publikoa indarkeria matxistaren eta indarkeria LGTBIQ+fobikoaren aurrean dokumentua onartzea proposatu da. Gaiaren berri eman da.

Udalbatzak, aho batez, erabaki du:

Bakarra.- Erantzun publikoa indarkeria matxistaren eta indarkeria LGTBIQ+fobikoaren aurrean dokumentua onartzea.

5.- GOIERRIKO ESKUALDEKO UDALEN ETA GOIERRIKO EKIMENA SA-REN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, TOKIKO ENPLEGU ETA GARAPEN PLANEN ARLOAN. ONARPENA HALA BADAGOKIO.

Goierriko eskualdeko Udalen eta Goierriko Ekimena SA-ren arteko lankidetza-hitzarmena, tokiko enplegu eta garapen planen arloan onartzea proposatu da. Gaiari buruz hitz egin da.

Udalbatzak, aho batez, erabaki du:

1.- Onartzea Goierriko eskualdeko Udalen eta Goierriko Ekimena SA-ren arteko lankidetza-hitzarmena, tokiko enplegu eta garapen planen arloan.

2.-Alkatea ahalmentzea lankidetza-hitzarmena sinatzeko.

6.-KREDITUEN JUDIZIOZKO KANPOKO AITORPENA ONARTZEA. FAKTURAK: HIRUNET ERAIKUNTZAK, FAT ZENB.2025-0037 ETA RAUL MARTIN ROPERO, FAT ZENB. F2025103.

Kontuan hartuta 2026/336 zenbakia duen maiatzaren 25eko Alkatetza Dekretua, idazkari-kontuhartzailearen txostena eta Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen seigarren tituluko lehenengo kapitulua garatzen duen apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 60.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, udalbatzak, aho batez, erabaki du:

Lehenengo.- kreditu hauen (HIRUNITZ ERAIKUNTZAK, fat zenb.2025-0037, 1.936,00 euro eta Raul Martin Ropero, fat zenb. F2025103, 8.305,44 euro) judizioz kanpoko aitorpena onartzea.

Bigarren.- 2026. ekitaldiko aurrekontuaren kargura kredituak aplikatzea, fat zenb.2025-0037 (1.227.99.412.00) eta fat zenb. F2025103 (1.227.00.323.10) aurrekontu-aplikazioen kargura.

Idiazabalgo
Udala

7.- 2026KO BAXOAREN AZTERKETAK EUSKARAZ PASATZEAREN ALDEKO SOSTENGU MOZIOA. ONARPENA HALA BADAGOKIO.

Ondorengo mozioa onartzea proposatu da:

“2026ko Baxoaren azterketak euskaraz pasatzearen aldeko sostengu mozioa

- Ikusirik Hezkuntza Kodearen 121-3 artikulua, azterketa eta konkurtsoetan eskualdeko hizkuntzen lekua aitortzen duena,
- Ikusirik 2021eko abenduko zirkularra, hezkuntza sisteman «eskualdeetako hizkuntzen » sustapenari eta balorazioari buruzkoa, non aurreikusia den « Baxoan azterketak eskualde hizkuntzan aurkezten ahal » direla,
- Kontuan hartuz, 2012tik euskarazko irakaskuntza segitzen zuten ikasleek, 2019ko erreforma arte, Baxoaren azterketa batzuk euskaraz pasatu zitzaketela, zehazki matematika eta historia-geografia,
- Kontuan hartuz 2025eko ekainean argitaratu den ministeritzaren erabakiak, matematika azterketa aitzinatuko ibilmoldeari buruz, ez duela zehazten zein hizkuntzatan erantzun behar den, eta ondorioz orain arteko praktika bermatzen duela,
- Kontuan hartuz hunkituak diren ikasleak, 2025-2026 ikasturtearen hastapenetik, azterketa hori euskaraz egiteko prestatu direla, aitzineko urteen jarraipenean, eta orain arte ez zaiela kontrakotasunik jakinarazi,
- Kontuan hartuz prestakuntza hori Hezkuntzaren zerbitzu publikoaren konfiantza eta jarraipen printzipio batean oinarritzen dela,
- Kontuan hartuz 2026ko ekaineko matematika azterketa aitzinatua euskaraz pasatzeko debeku baten iragartze berantiarra haustura bortitza eta arrazoirik gabekoa dela,
- Kontuan hartuz erabaki horrek ehun ikasle baino gehiago zailtasunean ezartzen dituela eta segurtasunik gabeko egoera pedagogiko bat sortzen duela eta gazte hauen etorkizunerako ondorioak dituela,
- Kontuan hartuz Frantziako Hezkuntza ministroak Baxoan hizkuntza minorizatuen lekua bermatzeko 2027rako neurriak hitzeman dituela, eta 2026ko azterketa aitzinatua egutegi horretan sartzen dela,
- Kontuan hartuz 2012 urtetik abiatua zen matematiketako esperimentazioa segitzea aterabide erraza, pragmatikoa eta errespetuzkoa litzateke ikasleentzat eta Estatuaren engaiamenduaren adierazgarri,
- Kontuan hartuz azterketak euskaraz aurkezteko hiru sareek (publikoak, pribatuak eta Seaskak) sustengatzen duten eskaera dela, eta eskaera hori aho batez sustengatua dela Ipar Euskal Herriko parlamentari eta ordezkari instituzionalen aldetik,

---------- herriko kontseiluak :

- Sustengu osoa adierazten die euskarazko irakaskuntzan sare ezberdinetan ari diren ikasle, familia eta hezkuntza taldeei,
- Galdegiten dio Bordeleko akademiako errektoreari, behin behinean, euskaraz pasatzeko aukera atxikitzea, 2012tik indarrean den esperimentazioaren jarraipen gisa, Matematika azterketa aitzinatua Lehen mailako ikasleentzat ;
- Dei egiten dio Frantziako Hezkuntza ministroari, 2026ko ekaineko azterketetan « eskualdeko hizkuntzen » egiazko konsiderazioa berma dezan, luzamendurik gabe,

bereziki matematikako aurreratu azterketan, Lehen mailako ikasleentzat eta Ahozko Proba Handian, Terminaleko ikasleentzat ;

- Oroitarazten du hizkuntza gutiagotuen aldeko diskurtsoak ekintza zehatz eta koherenteetan islatu behar direla ;
- Goraki aldarrikatzen du Euskararekiko atxikimendua, gure lurraldeko ondare bizia baita".

Udalbatzak, aho batez, 2026ko Baxoaren azterketak euskaraz pasatzearen aldeko sostengu mozioa onartzea erabaki du.

8.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Alkateak adierazi du:

1.- 2026-KALD-000001-00 zenbakia duen kreditu aldaketa onartu dela eta horren berri eman da.

2.-. Erronka demografikoko udalerrietan energia garbiko tokiko proiektu berezietarako inbertsioetarako laguntzak, DUS 5000 programa. LED argiteriari buruzko laguntza kobratu dela.

Seiak eta hogeita hamairu minutu direnean bilkura bukatu egin da.

XABIER OTAEGUI LEUNDA - 34090688L
Digitalki sinatuta norengandik: XABIER OTAEGUI LEUNDA - 34090688L
Data: 2026.06.26 07:15:04 +02'00'

ALBERDI IPARRAGUIRRE IÑAKI - 72456101Y
Digitalki sinatuta norengandik: ALBERDI IPARRAGUIRRE IÑAKI - 72456101Y
Data: 2026.06.26 09:57:47 +02'00'